|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

AYUNTAMIENTO DE
EZCABARTE
EZKABARTEKO
UDALA



# Noviembre Azaroa 2026

| Lunes Astelehena | Martes Asteartea | Miércoles Asteazkena | Jueves Osteguna | Viernes Ostirala | Sábado Larunbata | Domingo Igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 / 30 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |

AYUNTAMIENTO DE
EZCABARTE
EZKABARTEKO
UDALA

# Diciembre Abendua 2026



| Lunes Astelehena | Martes Asteartea | Miércoles Asteazkena | Jueves Osteguna | Viernes Ostirala | Sábado Larunbata | Domingo Igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

# Semana del Bienestar Emocional

La salud mental es un estado de bienestar emocional, psicológico y social que afecta como pensamos, sentimos y actuamos. Es fundamental en todas las etapas de la vida, desde la infancia hasta la vejez. Mantener una buena salud mental ayuda a manejar el estrés, relacionarse con los demás y tomar decisiones adecuadas. Cuidar la salud mental es esencial para el bienestar general y se puede lograr a través de hábitos diarios, autocuidado y apoyo profesional. Por ello el Ayuntamiento del Valle de Ezcabarte celebró la Semana del Bienestar del 17 al 21 de noviembre en el Polideportivo del Valle, con un programa de actividades gratuitas orientadas a promover la salud mental bajo el tema central “darse cuenta”.

Durante cinco días, el Polideportivo acogió diariamente talleres gratuitos, para todas las edades, con el objetivo de fomentar hábitos saludables en relación al bienestar emocional y aprender herramientas para mejorar en nuestro día a día. Se ha desarrollado una programación experiencial y práctica dirigida tanto a personas con experiencia previa en el trabajo personal como a aquellas nuevas en la materia. El programa ha contado con un “crossfit de la autoestima” en el que se han trabajado los pilares para una autoestima sana, un taller titulado “el trivial de las emociones” para aprender sobre bienestar emocional o una sesión para desarrollar técnicas de meditación, relajación y respiración. La semana se cerró con un taller de risoterapia, en el que se aprendió a desarrollar el humor, cualidad muy valiosa para múltiples situaciones vitales.

“Tan importante es cuidar la salud física como la salud mental” por eso el Ayuntamiento ha apostado firmemente por promoverlo. En 2023 gracias al apoyo del Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra esta entidad comenzó con formaciones y desde entonces hemos ofrecido actividades anualmente”.

La Semana del Bienestar ha tenido muy buena acogida, han participado tanto personas del Valle, algunas de las cuales ya habían realizado formaciones previas en bienestar como otras usuarias del Polideportivo. En conjunto, las personas participantes se han sentido muy satisfechas de la propuesta y del contenido de los talleres.

La iniciativa ha sido promovida por el Ayuntamiento del Valle de Ezcabarte con el apoyo del Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra (ISPLN) y la asistencia técnica de El Buen Vivir. ■





# Ongizate Emozionalaren Astea

Adimen osasuna ongizate emozional, psikologiko eta sozialeko egoera da eta eragin handia izaten du guztiok pentsatu, sentitu eta jokatzeko dugun moduan. Funtsezkoa da bizitzaren etapa guztietan, haurtzarotik hasi harik eta zahartzarora arte. Adimen osasun on bati eustea lagungarria da estresa kudeatzeko, besteekin harremanak izateko eta erabaki egokiak hartzeko. Adimen osasuna zaintzea funtsezkoa da ongizate orokorrerako eta eguneroko ohituren bidez lortu daiteke nahiz norbere burua zainduz edo laguntza profesionalaren bidez. Horregatik, Ezkabarte Ibarreko Udalak, Ibarreko Kiroldegian, Ongizatearen Astea ospatu zuen azaroaren 17tik 21era, doako jardueren programa batekin, denak adimen osasuna sustatu beharrezkoak, “Ohartu” lema orokorraren azpian.

Bost egun horietan kiroldegian egunero ospatu ziren adin guztietarako doako tailerrak, helburua zelarik ongizate emozionalaren arloan ohitura osasuntsuak sustatzea eta zenbait tresna ikastea gure eguneroko bizitzan hobetzeko. Esperientziaren bidezko programazio praktiko bat garatu da, bai lehendik lan pertsonalean esperientzia zutenentzat bai gai horretan sartu berriak zirenentzat egokia. Programaren barrenean “autoestimuaren crossfit” bat antolatu zen, zeinean autoestimu osasuntsu baterako oinarriak landu ziren, eta bai halaber “emozioen triviala” deitu tailer bat ere, ongizate emozionalaren berri ikasteko edo meditazio, erlaxazio eta arnasketa teknikak garatzeko saio bat ere bai. Asteari amaia emateko, barre-terapiazko tailer bat egin zen, zeinean umore zentzua nola garatu ikasi zen, bizitzako hainbat egoeratan trebetasun txit baliotsua baita.

“Gorputzaren osasuna zaintzea bezain garrantzitsua da adimenarena ere zaintzea”. Horregatik Udalak apostu sendoa egin du adimen osasuna sustatzeko. 2023an, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren laguntzari esker, Udala Prestakuntza saioak antolatzen hasi zen eta harez geroztik urtero eskaini ditugu halako jarduerak”.

Ongizatearen Asteak oso harrera ona izan du. Ibarreko pertsonen partehartzea handia izan da eta haietako batzuk lehendik ere halako ongizate prestakuntzak eginak zituzten, baina kiroldegiaren beste erabiltzaile askok ere parte hartu dute. Oro har, parte hartzaileak oso pozik atera dira tailerretako proposamenekin eta edukiarekin.

Ezkabarteko Udalak sustatu du ekimen hau, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren laguntzarekin (NOPLOI) eta El Buen Vivirren aholkuarekin. ■



# Medallas al merito deportivo 2025

El pasado 17 de diciembre, el Gobierno de Navarra concedió la Medalla de Oro al Mérito Deportivo al pelotari Javier Urriza. Junto a este máximo reconocimiento, se otorgaron también 16 Medallas de Plata a personas destacadas por su trayectoria deportiva o por su labor de gestión en el ámbito del deporte.



Entre las personas galardonadas con la Medalla de Plata se encuentra nuestro vecino de Arre, **Roberto Martínez Ibáñez,** en reconocimiento a su servicio extraordinario y de incontrastable mérito al mundo del deporte, y en especial a la **lucha deportiva,** disciplina a la que ha dedicado de forma voluntaria, sin remuneración, tiempo, esfuerzo, ilusión y compromiso.

Roberto comenzó con la práctica de este deporte minoritario, convirtiéndose en una figura relevante en Navarra y cosechando numerosos éxitos. Cuenta con más de **25 años de dedicación a la lucha en Navarra,** desempeñando responsabilidades como delegado nacional, seleccionador y, posteriormente, fundador y presidente de la **Federación Navarra de Lucha.** Asimismo, fue uno de los impulsores del **Club de Lucha de Burlada,** donde se han formado deportistas destacados y se han alcanzado importantes logros tanto en campeonatos nacionales como internacionales. Cabe destacar especialmente el impulso a la lucha femenina, con un palmarés que incluye **seis campeonatos de España por clubes.**

En la actualidad, Roberto es también el responsable de la sección de Lucha del **C.D. Avance Ezkabarte,** continuando así su incansable labor de promoción y desarrollo de este deporte.

Desde el Ayuntamiento queremos trasladarle nuestra **más sincera enhorabuena y reconocimiento** por este merecido galardón.

Aprovechamos estas líneas deportivas para **felicitar también a Leire Zarranz Arraiza, de Arre por conseguir una importante y meritoria medalla de bronce con la Selección Navarra Juvenil de Balonmano en el campeonato de España de Selecciones Autonómicas y su convocatoria con la selección Española. Felicitar también y apoyar a los y las deportistas de nuestro Valle,** que son muchos y muy buenos, y que han conseguido distintos triunfos tanto individuales como por equipos en diferentes disciplinas como taekwondo, patinaje, hockey sobre hielo, pelota, lucha, fútbol y muchas otras. A todas las personas que practican cualquier modalidad deportiva, os animamos a seguir adelante, a luchar por vuestros objetivos y, sobre todo, a **disfrutar del deporte.** ■

# 2025eko kirol merezimenduaren domina

Joan den abenduaren 17an Nafarroako Gobernuak Javier Urriza pelotariari eman zion Kirol Merezimenduaren Urrezko Domina. Goren-goreneko galardo horrekin bat, 16 zilarrezko domina ere eman zitzaizkien beren kirol ibilbideagatik edo kirolaren arloan egindako kudeaketa lanagatik seinalatu diren pertsonei.

Horrelako zilar domina bat hartu zuten pertsonen artean, **Roberto Martínez Ibáñez,** Arreko herrikidea aurkitzen da, saritu eta aitortzeko kirol munduari egin dion zerbitzu paregabe eta miresgarria, berariaz **Kirol Borrokaren mundua-ri,** diziplina horretan aritu baita bera, bere oldez, diru-saririk gabe eta denbora, eginahala ilusioa eta konpromisoa xuhurtu gabe aritu izan baita horretan.

Roberto gutxiengo kirol horretan hasi zen eta, denboraren buruan, erreferente handi bihurtu zen arlo horretan Nafarroan, baita garaipen asko ere irabazi. **25 urte baino gehiagoan aritu da Kirol Borrokaren arloan Nafarroan** eta karguak ere izan ditu, Mandatari Nazional gisa, Hautatzaile, eta, azkenik, **Nafarroako Borroka Federazioaren Fundatzaile eta Lehendakari gida.** Berak bultzatu zuen, beste batzuekin batera, **Burlatako Borroka Kluba (Club de Lucha de Burlada),** non kirolari seinalatuak formatu diren eta garaipen handiak ere lortu, bai txapelketa nazionaletan nola nazioartekoetan. Bereziki aipatu beharra dago emakumeen borroka-kirolari emandako bultzada, arlo horretan **sei txapel irabazi baitituzte Espainiako Kluben Txapelketetan.**

Gaur egun Roberto C.D. Avance Ezkabarte klubeko Borroka Atalaren arduraduna da eta horrela segitzen dio kirol hori bultzatu eta gararazteko aspalditik hasi zuen lan nekaezinari.

Udaletik ere bihotz-bihotzetik gure zorion beroa eta gure aitormena igorri nahi dizkiogu merezi onez hartutako sari horrengatik.

Eta kirolari buruzko lerro hauek aprobetxatuz, zoriondu nahi ditugu, halaber, **Leire Zarranz Arraiza, Arrekoa, brontzezko domina garrantzitsu bat lortu duelako Nafarroako Eskubaloiaren Gazte Selekzioarekin Espainiako Selekzio Autonomikoen Txapelketan, eta Espainiako Selekzioak deitu diolako. Zorionak eta laguntza eman nahi dizkiegu, bestalde, gure ibarreko kirolari guztiei,** asko baitira eta onak, hainbat garaipen izan baitituzte bai bakarka bai taldeka, hainbat diziplinatan, hala nola taekwondo, irristaketa, izotz gaineko hockeya, pilota, borroka, futbola eta beste askotan. Edozer kirol motatan aritzen diren pertsonei bultza egin nahi dizuegu aurrea segitzera, zuen helburuak iristeko ahalegintzera eta, batez ere, **kirolaz gozatzera.** ■

## Horario nocturno para el taxi a demanda




A partir del **5 de enero,** los vecinos y vecinas del Valle de Ezcabarte que pueden utilizar el servicio de **Taxi a Demanda** dispondrán de **dos nuevos horarios nocturnos** durante las noches de **viernes y sábado.**

Tras varias gestiones y pese a las reticencias iniciales por parte de la Asociación de Taxistas, el Ayuntamiento ha conseguido incorporar al horario habitual dos **nuevos servicios,** uno a la **1:00 de la madrugada** y otro a las **2:00,** para los citados días. Consideramos que, aunque se trata de un primer paso, estos nuevos horarios pueden resultar significativos y abrir la puerta a posibles ampliaciones del servicio en el futuro.

Recordamos que para hacer uso del Taxi a Demanda es imprescindible **estar empadronado o empadronada en Ezcabarte.** El servicio se presta en todas las localidades del Valle, **a excepción de Arre y Oricain,** que ya cuentan con servicio de Transporte Urbano Comarcal.

Para utilizar el servicio es necesario **registrarse previamente en el Ayuntamiento.** El taxi trasladará a la persona solicitante, en los horarios establecidos, hasta el **Ayuntamiento, el Centro de Salud o Villava,** y también realizará el trayecto inverso desde Villava hacia los pueblos de Ezcabarte.

El servicio está dirigido a **personas mayores de 14 años,** así como a menores acompañados de una persona adulta. El **precio por persona y trayecto es de 1,50 €.**

Si todavía no conoces el servicio de Taxi a Demanda o deseas ampliar información, puedes ponerte en contacto con el **Ayuntamiento de Ezcabarte.** ■

## Eskatuz geroko taxia gauaz erabiltzeko orduak

Urtarrilaren bostetik aurrera, **Eskatuz Geroko Taxi**aren zerbitzua erabil dezaketen Ezkabarteko lagunek **gauazko zerbitzurako bi ordutegi** berri izanen dituzte **ostiral eta larunbat gauetan.**

Zenbait dilijentzia egin ondoren eta hasieran Taxisten Elkarteak pixka bat gogor egin bazuen ere, Udalak lortu du ohiko ordutegiari **bi zerbitzu aldi berri eranstea,** bat goizaldeko **1:00etan** eta beste bat **2:00etan,** aipatu egun horietarako. Uste dugu, lehenbiziko pausoa besterik ez bada ere, ordutegi berri horiek garrantzitsuak izan daitezkeela eta gero batean zerbitzua are gehiago zabaltzeko bidea ireki dezaketela.

Gogoratu nahi dugu Eskatuz Geroko Taxia erabiltzeko nahitaezkoa dela Ezkabarten erroldatua egotea. Zerbitzua ibarreko herri guztietan ematen da, salbu eta Arren eta Orikainen, horiek Iruñerriko Hiri Garraioaren zerbitzua erabil baitezakete.

Zerbitzua erabiltzeko, lehenbizi Udalean erregistratu behar duzu. Taxiak esandako ordu horietan erabiltzailea Atarrabiaraino eramanen du, Udaleraino edo Osasun Etxeraino, eta itzulerako bidea ere eginen du Atarrabiatik Ezkabarteko herrietaraino.

Zerbitzua 14 urtez goitiko pertsonentzat antolatua dago, bai eta adingabekoentzat ere heldu bat lagun baldin badute. Prezioa pertsona eta ibilaldi bakoitzeko **1,50 €koa da.**

Eskatuz Geroko Taxiaren zerbitzua ezagutzen ez baduzu edo informazio gehiago hartu nahi baduzu, aski duzu **Ezkabarteko Udalarekin** harremanetan jartzea. ■

## 25n video contra de la violencia de genero



De todas y todos es bien sabido que el 25N se conmemora el Día Internacional de la eliminación de la Violencia contra la Mujer. Este día es una llamada colectiva para reconocer y erradicar la violencia hacia las mujeres, todo tipo de violencia, con el fin de concienciar sobre este problema. Por ese motivo y dentro del marco de programas, concentraciones, talleres, actividades que se ofrecen desde distintas instituciones, grupos y asociaciones, el Ayuntamiento de Ezcabarte con la participación de diferentes colectivos del Valle; Coral de Ezcabarte, Asociación Jubilados San Román, Párroco y Parroquias del Valle, CD.Avance-Ezkabarte, Sorauren Kirol Elkartea, Nahaiak y la Corporación del Ayuntamiento, ha realizado un video publicado a través de nuestros medios de difusión demostrando el apoyo y aunando fuerzas, sin tapujos, ante la violencia de género. El Ayuntamiento, quiere así reafirmar el compromiso con la igualdad real y con la erradicación de todas las formas de violencia machista desde nuestras responsabilidades profesionales, éticas, de prevención, protección y de respuesta coordinada, para garantizar los derechos humanos, la justicia y la no discriminación por razones de género. ■

## Azaroak 25 genero indarkeriaren kontrako bideoa

Mundu guztiak daki azaroaren 25ean Emakumearen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko Eguna ospatzen dela. Egun horretan, bada, dei egiten zaigu denen artean emakumeen kontrako indarkeria ezagutu eta desagerrarazteko, edozer indarkeria mota, arazo horren gainean kontzientzia harraraztea helburu. Hori dela eta, eta hainbat instituzio, talde eta elkarteek eskaintzen dituzten programa, bilera, lantegi eta jardueren barrenean, Ezkabarteko Udalak ere, Ibarreko zenbait elkarte eta talde lagun dituela (Ezkabarteko Abesbatza, San Román Jubilatuen Elkartea, Ibarreko parrokoa eta parrokiak, CD.Avance-Ezkabarte, Sorauren Kirol Elkartea, Nahaiak eta Udalaren Batza), gure hedabideen bitartez bideo bat itxuratu eta argitaratu du kausa horren aldeko agertuz eta aitzakiarik gabe genero indarkeriaren aurrean indarrak batuz. Udalak, hartara, indartu nahi du benetako berdintasunarekin eta indarkeria matxistaren forma guztiak erauzi beharrarekin duen konpromisoa, gure erantzunbehar profesional, etiko, prebentzizko eta erantzun koordinatuetatik, giza eskubideak, justizia, eta genero arrazoiengatik diskriminazio eza bermatzeko. ■



## Plaza de secretaría y servicios multiples

Han transcurrido casi tres años desde la publicación de la convocatoria para la obtención de la habilitación y el acceso a los puestos de Secretaría de las Entidades Locales de Navarra, a través del proceso selectivo en turno libre mediante concurso-oposición, así como del proceso extraordinario de estabilización de empleo temporal, también por concurso-oposición.

Una vez superados los distintos procesos selectivos y en aplicación de la normativa foral vigente —especialmente la Ley Foral de reducción de la temporalidad y la Ley Foral de Administración Local—, el 30 de mayo del pasado año se dictó la Resolución 184/2025. Mediante dicha resolución, la Dirección General de Administración Local y Despoblación procedía al nombramiento de las nuevas secretarias y secretarios de las entidades locales de Navarra, con el objetivo de garantizar el correcto ejercicio de las funciones públicas atribuidas a estos puestos.

Entre las plazas a cubrir se encontraba la Secretaría de la Agrupación de Ayuntamientos de Ezcabarte y Olaibar. Tal y como establecía la Resolución, las personas adjudicatarias debían tomar posesión de sus respectivos puestos el día 1 de julio de 2025. En esa fecha tomó posesión del cargo en Ezcabarte Jesús Miguel Erburu Arbizu, quien ya había desempeñado esta función como contratado administrativo durante el periodo comprendido entre julio de 2012 y agosto de 2018.

No obstante, desde el Ayuntamiento del Valle de Egüés, donde el Sr. Erburu había ejercido como secretario desde su salida de Ezcabarte hasta su nombramiento definitivo, se solicitó una comisión de servicios. Al no existir oposición por parte del funcionario, en la actualidad continúa desempeñando sus funciones en dicho Ayuntamiento.

Esta situación provocó que, pese a haberse cubierto formalmente la plaza de Secretaría en Ezcabarte el 1 de julio de 2025, se produjera una sucesión de relevos en el puesto. En primer lugar, finalizó su etapa Joaquín Lizarraga, quien pasó a ocupar la Secretaría del Ayuntamiento de Leitza. Posteriormente, se dio la bienvenida a Íñigo Aliaga Moreno, quien desempeñó el cargo durante seis meses hasta su marcha, en diciembre, al Departamento de Salud para incorporarse a un puesto de carácter jurídico. Finalmente, con el inicio de 2026, se ha incorporado al puesto de Secretaría Miriam Buisan Aguirre.

Este continuo "baile" en la Secretaría municipal, muy a nuestro pesar, ha tenido consecuencias en el funcionamiento ordinario del Ayuntamiento, entre ellas la paralización del proceso de Oferta Pública de Empleo para la provisión de tres plazas vacantes de personal de Servicios Múltiples en régimen funcionarial. Se trata de un procedimiento urgente y necesario, cuya reactivación se ha marcado como prioridad la nueva secretaria, con el objetivo de que dichas plazas puedan ser ocupadas a la mayor brevedad posible. ■



## Idazkaritzako eta zerbitzu anitzetarako postuak

Ia hiru urte joan dira Nafarroako Toki Entitateetako Idazkaritza Postuetara sartzeko gaikuntza eskuratzeko deialdia argitaratu zenetik, txanda libreko hautapen prozesuan, oposizio-lehiaketaren bidez, bai eta behin-behineko enplegua egonkortzeko ohiz gaineko hautapen prozesuan, hori ere oposizio-lehiaketaren bidez.

Hautapen prozesu guztiak gainditu ondoren, eta indarrean diren foru arauak aplikatuz —bereziki Behin-behinekotasuna Gutxitzeari buruzko Foru Legea eta Toki Administrazioari buruzko Foru Legea—, joan den urteko maiatzaren 30ean 184/2025 Ebazpena eman zen. Haren bidez, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Toki Entitateetarako idazkari berriak izendatu zituen, postu horiei dagozkien eginkizun publikoak egoki burutan atera daitezen bermatzeko.

Bete beharreko lanpostuen artean Ezkabarteko eta Olaibarko Udalen Elkarteko idazkaritza zegoen. Ebazpenak ezartzen zuen moduan, adjudikaziodunek 2025eko uztailaren 1ean hartu behar zuten beren lanpostuaren jabetza. Data hartantxe, bada, Jesús Miguel Erburu Arbizuk hartu zuen Ezkabarten karguaren jabetza. Lehendik ere lanpostu horretan aritua zen administrazio kontratudun gisa, 2012ko uztailetik 2018ko abuztura arteko denbora tartean.

Hala guztiz ere, Eguesibarko udalak, non Erburu jauna idazkari aritua baitzen Ezkabartetik atera zenetik behin betiko izendapena lortu arte, zerbitzu komisio bat eskatu zuen harentzat. Funtzionarioak ez baitzuen kontrako oztoporik jarri, gaur egun oraindik udal horretan ari da fun tzio horiek betetzen.

Egoera horren ondorioz, Ezkabarten idazkari lanpostua formalki 2025eko uztailaren 1ean bete bazen ere, hainbat aldiz erreleboak izan ziren postu horretan. Lehenbizikorik, Joaquín Lizarragak bukatu zuen han bere etapa, eta bai ondoren Leitzako Udalean Idazkaritza hartzera joan ere. Ondoren, Íñigo Aliaga Morenori eman zitzaion ongietorria, bai eta hark sei hilabetez kargua bete ere, harik eta abenduan Osasun Departamentura joan zen arte, zuzenbidearen arloko postu batean sartzeko. Azkenik, 2026an hasita, Miriam Buisan Aguirre etorri da idazkari lanpostua gure artean betetzera.

Udalaren Idazkaritzan, oso gure gogoz kontra, honelako "dantza" etengabea egoteak ondorioak izan ditu Udalaren eguneroko jardunbidean, besteak beste, Zerbitzu Anitzetako langileen hiru lanpostu betegabe erregimen funtzionarialean betetzeko Lanpostu Eskaintza Publikorako prozedura gelditu beharra. Behar-beharrezko eta presa handiko prozedura da eta idazkari berriak erabateko lehentasuntzat hartu du hura berrabiatzea, lanpostu horiek lehenbailehen bete daitezen helburu. ■

# Vacas bomberas



Quien disfrute de los recorridos y rutas que ofrece Ezcabarte bien haciendo senderismo o corriendo, y sobre todo los amantes, que no son pocos, del recorrido de la Vuelta a la Torre, se habrán encontrado con un decorado añadido al paisaje y a la vegetación del entorno. De gran porte, de mugir potente, pero inofensivas, encontramos a nuestras vacas bomberas. Se trata de vacas de raza Galloway, una especie escocesa, propiedad de los ganaderos de Ezcabarte y Olaibar, Adelardo Paternain y Sergio Cobo. Estas vacas se alimentan de los pastos reduciendo la masa arbustiva que fomenta los incendios en épocas secas y de calor. Estos ganaderos han implementado una tecnología innovadora, los vallados virtuales, que permiten mejorar la gestión del ganado en pastoreo sin necesidad de cercados físicos. El vallado virtual es un **sistema basado en un dispositivo colocado en el animal,** que funciona a modo de cencerro digital y permite delimitar zonas de pastoreo mediante una aplicación móvil. Si el animal sobrepasa los límites establecidos, recibe una señal sonora y, en caso de insistir, un ligero pulso eléctrico para disuadirlo. Además, el sistema proporciona información en tiempo real sobre la localización del ganado y posibles escapes o fugas.

El hacer de estos ejemplares y particulares bomberas, desarrolla el pastoreo extensivo y ayuda a minimizar el riesgo de incendios para garantizar la conservación de los ecosistemas. **Una herramienta clave para mantener nuestro entorno y seguir disfrutando de él.**

# Behi suhiltzaileak

Ezkabartek eskaintzen dituen oinbideak erabiltzen dituztenek, dela mendiko xendetan ibiliz, dela lasterka eginaz, eta batez ere Dorrearen Jira ibilbidea maite dutenek (ez baitira gutxi), Inguruneko landaretzaz eta paisaiaz gain, dekoratu berezi bat ere topatu izanen dute. Gorputz handiko, marruma latzeko, baina erabat kaltegabeak, gure behi suhiltzaileak topatzen ditugu bideetan. Galloway arrazako behiak dira, Ezkoziako espezie batekoak, Adelardo Paternain eta Sergio Cobo Ezkabarte eta Olaibarko aziendadunen jabetza direnak. Behi horiek urte guztian alan egoten dira eta urtaro lehor eta beroetan su arriskua sortzen duen zuhaixka-masa gutxitzen dute. Teknologia berritzailea abiatu dute aziendadun horiek, bestalde: hesi birtualak hain zuzen, aukera ematen baitute azienda-zaintzako kudeaketa hobetzeko, hesi fisikorik behar ez dela. Hesi birtual hori **animaliaren gainean ezarritako dispositibo baten bidezko sistema da,** nolabaiteko joare digital bat, esango genuke, aukera ematen duena azienda-zaintzako eremuak mugatzeko, mobil-aplikazio baten bitartez. Aziendaburu batek jarritako mugak pasatzen baditu, soinu seinale bat jasotzen du eta, berriro egiten badu, deskarga elektriko arin bat hartzen, atzera eragiteko. Horrez gain, sistemak denbora errealeko informazioa ematen du jakiteko aziendaburuak non diren eta inora lekutu edo ihes egin ote duten.

Suhiltzaile berezi eta eredukzo horien jarduerak zabaldu egiten du azienda-zaintza estentsiboaren eremua eta bai sute arriskua gutxitzen lagundu ere ekosistemen kontserbazioa bermatzeko. **Ezinbesteko tresna gure ingurunea mantendu eta aurrera ere hartaz gozatzeko.**

## NACIMIENTOS / JAIOTAKOAK

**Tyago Daniel Adam Francisc** - Arre
**Rut Elizabeth Adam Francisc** - Arre
**Sabana Garcés Aranaz**- Arre
**Paula Aristu Mancini** - Eusa
**Alanna Peñafiel Abril** - Arre
**Joritz Machinena Iriarte** - Arre
**Muhammad Arham Ahmed Naz** - Arre
**Stiven Junior Silverio Peña** - Oricain
**Inay Bravo Espinoza** - Arre
**Rafael Ding Nagy** - Arre
**Odei Hernandez Unciti** - Arre
**Martín Yaben Gurruchaga** - Sorauren
**Ibai Pavesio Reboredo** - Arre

## DEFUNCIONES / ZENDUTAKOAK

**Antonio Cano Puche** - Oricain
**Jesus Villanueva Aizpún** - Cildoz
**Francisca Bonache Navarro** - Arre
**Mª José Vides Subiza** - Azoz
**José Ignacio Aiciondo Echeverría** - Sorauren
**Vicente Sánchez-Arévalo Calvo** - Arre
**Benita Aguinaga Sarasibar** - Aderiz
**Angel María Aristu Larrainzar** - Ezcaba
**Pedro Feligreras Ocaña** - Arre
**José Fernández Jiménez** - Arre
**Mª Elena Domínguez** - Azoz
**Juantxo Izcue Daroca** - Arre
**Cistina Sagués Eizaguirre** - Arre

**Teléfonos de interés / Intereseko telefonoak**

| | |
|---|---|
| Ayuntamiento de Ezcabarte (Oricain) | **948 330 341** |
| Quejas y sugerencias | **948 012 012** |
| Contra la violencia de Género | **016** |
| Centro de Salud de Villava | **948 335 075** |

| | |
|---|---|
| Consultorio Médico (Arre) | **948 332 335** |
| Polideportivo Ezcabarte (Azoz) | **948 330 758** |
| Servicio Social de Base | **948 130 734** |